

MIEL JOXE ASTARBE › 'SAGARDOAREN HIZTEGIA'-REN EGILEETAKO BAT

# «Jaso ditudan hitz asko aitarengandik eta osabarengandik ikasi ditut»

Kaleratu duen hiztegia duela hogeita bost urte hasitako lanaren jarraipena dela adierazi du Miel Joxe Astarbek, eta helburua sagardogintzaren inguruko hitzak jasotzea dela gaineratu du.

2009ko txotx garaiaren hasierarekin batera, Miel Joxe Astarbek, Urkiri Salaberriak eta Sagardo Etxeak *Sagardoaren hiztegia* kaleratu zuten. Bertan, Astigarragako, Mutrikuko eta Hondarribiko sagardoaren inguruko hitzak bildu dituzte, orotara 500 ele inguru. 84 orriko liburuak horrek hitzak ez ezik, Antton Olariagak egindako ilustrazio ugari ere baditu. Urte askotako lanaren ondoren egindako hiztegia Astigarragako Sagardo Etxean eta Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrian erosteko aukera dago.

## Zergatik idatzi zenuen *Sagardoaren hiztegia*?

Sagardo Etxeko zuzendariak eskatu zidan hiztegia egiteko. Hala ere, 1983an, duela 25 urte inguru, herriko aldizkarian nik egindako lantxo txiki bat atera zen, *Astigarraga Sagardogintza* izenpean. Orduantxe saldu nituen lehenengo hiztegiak. Lan honek ehun bat hitz, 56 sagar mota eta hamar zapore biltzen zituen. Sagardo Etxeko zuzendari Joxe Mari Alberrok idatzi honen berri izan zuen, eta lan hau egiteko proposatu zidan. Esan dezaket duela 25 urte hasitako lanaren jarraipena dela.

## Zein da hiztegi hau kaleratzearen helburua?

Lan honen helburua sagardogintzaren inguruko hitzak jasotzea da. Bertan biltzen ditugun hainbat hitz dagoeneko galduta daude, eta beste batzuk sortzen ari dira. Etnologiaren munduan hitz asko berriak dira, eta lehengoko hitzak

galzten ari dira. Beraz, lehengoko hitzak eta oraingo berriak biltzen dituen bilduma da. Ondare bat dela esango nuke.


## Zer biltzen du liburuak?

Hiztegiak sagarraren prozesu guztia biltzen du bost ataletan. Bost dira atalak, sagarraren loreak bost petalo dituelako: *Sagastia, Sagarra, Biltzea, Dolarea, Patsa, Zapatzea, Upela, Muztioa, Irakitea*, *Ahoa, Sagardoa, Edatea* eta *Herri Baten Erroak* dira aipatutako bost atal horiek. Bertan, atal bakoitzari erreferentzia egiten dioten hitzen definizioak daude.

## Hiztegiaren dauden ia 500 hitz horiek non bildu dituzte?

Ni eta nire aita historia asko duen Astigarragako baserri batekoak gara. Gure baserriak, besteak beste, aspaldiko sagardotegia du: dolarea, upelak, sagastiak, biltegia... denak garai batekoak ditu. Giro horretan jaio nintzen, eta mutil koskorra nintzenez hor ibili nintzen jolasten: upel tartean, dolare ertzean gordeka... horrela ikasi nituen nire lehenengo hitzak. Gainera, osaba sagardotegiarekin gelditu zenez, aitak laguntzera bidaltzen gintuen: sagarrak biltzera, sagarrak dolarearekin jotzera, eta

«Hiztegiaren jaso diren hainbat hitz galduta daude, eta beste batzuk sortzen ari dira»



KIZKIZALARRETXEA

«Egindako hiztegiak sagarraren prozesu guztia biltzen du bost ataletan»

«Mutil koskorra nintzenez upel artean jolasten nintzen; horrela ikasi nituen hitzak»

abar. Horrela, hitz mordska ikasi nituen. Aitari ere galderak egiten nizkion sagardogintzaren inguruan. Osabari ere elkarrizketa egin nion duela 25 urte, lana argitaratu aurretik. Horrela hitzak bilduz joan nintzen. Oraingo lan honetan, lehengoaz gain, bilaka aritu naiz, eta hainbat hitz ere ekarri dizkigute: Mutrikukoak eta Hondarribikoak, hain zuzen ere. Askok irakurtzen dut, eta ikusten ditudan hitz berriak jasotzeko ohitura dut, horiek biltzeko afizioa edo zaletasuna dut.

## Bi hitz aukeratzekotan, zeintzuk aukeratuko zenituzke?

Hitz asko daude lan honetan bereziak direnak, baina bi aukeratzekotan, *mama goxua* eta *fuertatxoa* aukeratuko nituzke. *Fuertatxoa* hitza nire aitari jaso nion. Uste nuen euren baserrian bakarrik erabiliko zutela, baina lan hau aurkeztu genuenean, *fuertatxoa* hitza aipatu nuen, eta Ergobiko gizon bat etorri zitzaidan eta esan zidan bera mutil koskorra zenean etxean fortaxtoa deitzen ziotela. Kilometro bateko tartean gauza berbera izendatzeko bi esateko era aurkitu ditugu. Hitz askorekin gertatzen da herri baten modu batera esaten dela eta aldamenekoan, berri, beste era batera. Niretzat lan hau hasiera bakarrik da. Hitz berri asko ari dira sortzen, dagoeneko horiek ere biltzen ari naiz. Dolareak ematen duen azken estaldian ateratzen den sagardoari esaten zaio *fuertatxoa*.

## Anekdotarik ba al duzu?

Hitz batekin bitxikeria bat badago. Duela urte batzuk fraide bat etorri zen Taula baserrira. Han, etxeko sagardoa eman zioten edateko. Dastatu ostean, gehiago eskatu zuen 'hau mama gozoa' esanez. Horrela ezagutu nuen nik mama. Bitxia iruditu zitzaidan hitza, eta hiztegiaren jaso dut.

## Bizkaian, bizkaiko sagardoa

### Berritaba

Laka-Erdi Sagardoa  
Juan Amallobieta Arriola  
Tel.: 94 613 91 78

### Olma

Lapurriketa Sagardoa  
94 633 80 39

### Galba

Etxebarria Sagardoa  
Ibizar Etxebarria  
Tel.: 94 674 20 10

### Galik

Malgarrazaga Sagardoa  
Maribel Abajo  
Tel.: 661 296 915

### Estebanburua

Leneko Koop  
Leartibal Sagardoa  
Tel.: 94 684 20 26

### Iurle

Isasi Sagardoa  
Rufino Isasi Arrieta  
Tel.: 94 681 60 44

### Lezama

Erdikoebve Sagardoa  
Andoni Ojangueren Zorroza  
Tel.: 94 457 32 85

### Markina-Xemein

Axpe Sagardoa  
José Antonio Bilbao  
Tel.: 94 616 82 85

### Mendexa

Sebastiánek  
Sagardoa  
Anton Aresti Eiguren  
Tel.: 94 684 26 42

### Mizuki

Kandi Sagardoa  
Sat Kandi  
Tel.: 94 625 80 40

### Zornoko

Uarte Sagardoa  
José Antonio Zamalloa  
Tel.: 94 630 88 15



**bizkaiko sagardoa**